

Santa María de la Paz prelatu eliza

Santa María de la Paz prelatu elizak (Erroma) badu ate santu bat

2016 Ots 3

Santa María de la Paz prelatu elizak (Erroma) badu ate santu bat, hainbeste lekutan ireki direnen tankerakoa. Ate horietatik “sartzen denak kontsolatzen, barkatzen eta itxaropena eskaintzen duen Jainkoaren maitasuna nabari dezake” (Frantzisko Aita Santua).

Misericordiae Vultus buldan,
Frantzisko Aita Santuak bere nahia
azaldu du: jubileu-urte honetan
pertsona askok Jainkoaren errukia
berraurki dezala. Beste iradokizunen
artean, basilika ugarietan Errukiaren
Atea irekitzera animatu zuen. “Ate
horietatik sartzen den edozeinek
kontsolatzen, barkatzen eta
itxaropena eskaintzen duen
Jainkoaren maitasuna nabari
dezake”.

Santa María de la Paz prelatu elizako
Errukiaren Atea , joan den abenduko
13an zabaldu zen. Eliza horretan
gordetzen dira San Josemariaren eta
Alvaro dohatsuaren gorpuzkiak.

Horrela, eliza horretara doanak
Errukiaren Jubileua dela eta
eskaintzen den barkamen-
induljentzia osoa lor dezake, Buldak
ezartzen dituen baldintzak betez
gero. Induljentzia horrek norberaren
bekatuen denborazko zigorrari

dagokio eta hildako fededunen arimen alde otoitz bezala erabil daiteke.

Induljentziak hartzeko ohi den arabera eta jubileu-urtean eliza eta Errukiaren Ateari dagokionez santutegi desberdinetan aurrez hartutako erabakiei jarraituz, barkamen-induljentzia fededun hauek lor dezakete:

1. Erromes ibilaldian Santa María de la Paz prelatu eliza bisitatzen dutenek, eta han, Ate Santua edo Errukiaren Atea zeharkatu ondoren, elizkizunen batean parte hartu edo, gutxienez, tarte batean zehar, Errukia gogoratuz otoitzean dihardutenek.

2. Fedearen aitormena egin eta Aita Santua eta haren asmoen alde otoitzen bat errezatzen dutenek, Gure Aita batik bat. Otoitz tartea Jesus Jaun Errukitsuari laguntza-eskatze batez bukatzea gomendatzen

da (“Jesus Errukitsua, Zugan dut konfiantza” adibidez).

3. Eta Elizak ezarritako beste erabakiak betetzen dituztenek: adiskidetzearen sakramentua eta eukaristi jaunartzea. Eta gainera, edozein bekaturi, arina izanda ere, inolako nahitasunik ez izatea.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/santa-
maria-de-la-paz-prelatu-eliza/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/santa-maria-de-la-paz-prelatu-eliza/) (2025
Abu 11)